

**AÑARBEKO UREN
MANKOMUNITATEA**

AURREKONTU OROKORRA

2020ko ekitaldi ekonomikoa

AURREKONTU OROKORRA 2020ko EKITALDIA

AURKIBIDEA

I.	Sarrera	1
II.	2020rako Aurrekontu Orokorraren Edukia	1
	A) Añarbeko Uren Mankomunitatearen aurrekontua	1
	B) Aguas del Añarbe–Añarbeko Urak, SA Sozietate Publikoaren aurrekontua	3
	1. Sarrera	3
	2. AUSAren Aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria	3
	3. Kapitulukako laburpena	7
	4. Kontu-sailkako zehaztapena	8
	5. Konpromiso-kredituen zehaztapena	13
	6. Gastu arrunteko kapituluaren jarduerengatiko banakatzea	14
	7. Inbertsioen eranskina	14
	7.1. Azpiegitura hidraulikoa handitzea eta hobetzea xede duten partekatutako lanetarako inbertsioak	15
	7.2. AUMA/AUSAren ekimeneko lan berrientzako inbertsioak.....	16
	7.3. Zerbitzuen ustiatzeari loturiko inbertsioak.....	17
	7.4. Inbertsioak guztira	18
	7.5. Inbertsioen memoria.....	19
	7.6. Sarrera zehatz batzuen gauzatzearen edo kostuen aurreztearen mende dauden inbertsioak	35
	C) Aurrekontu bateratua	37
	D) AUSAren aurreikuspen-kontuak.....	38
	E) GECASAren aurreikuspen-kontuak eta aurrekontua	41
	F) Maileguen egoera	47
	G) Zorpetze eranskina	49
III.	Aurrekontu Orokorraren aurrekontuzko gauzatze-araua	50

AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEAREN AURREKONTU OROKORRA 2020ko EKITALDIRAKO

I. Sarrera

Dokumentazio honek osatzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Tokiko Erakundeen 21/2003 Aurrekontuzko Foru Arauak eskatzen duenarekin batera, Añarbeko Uren Mankomunitatearen Aurrekontu Orokorra 2020rako, indarrean dagoen araudia betez, Mankomunitate beraren eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA Sozietate Publikoaren (AUSA) Aurrekontuak barne hartzen dituen Aurrekontua, 1995ean sortu zenetik Mankomunitatea kudeatzen duen erakundea baita. Halaber, Gestión de centrales del Añarbe, SA sozietateari dagozkion aurreikuspenak barne hartzen ditu. AUSAk % 70eko partaidetza dauka aipatu sozietatean eta Energiaren Euskal Erakundeak, bestetik, beste % 30a.

II. 2020rako Aurrekontu Orokorren Edukia

A) Añarbeko Uren Mankomunitatearen aurrekontua

Añarbeko Uren Mankomunitatearen Aurrekontuak sarreraren eta gastuen egoera aurkezten du (aurrerago zehaztuko dira). Kudeaketarako Sozietate Anonimoa sortzeak eta Mankomunitatearen eta Sozietatearen arteko harremanak erregulatzen dituen hitzarmena sortzeak (hitzarmenak Sozietatearen esku uzten ditu 1995eko abenduaren 31ra arte Mankomunitateak ematen zituen zerbitzuak) hainbat aldaketa ekarri dituzte aurrekontuetan, eta haiek sarrera eta gastuetan eragina izan dute.

Aipatu Aurrekontua osatzen duten aurreikuspenak eta kredituak beren jatorri ekonomikoaren arabera antolatuta daude, indarrean dagoen aurrekontu-sailkapenaren arabera.

SARREREN EGOERA		
Kapitulua / Kontu saila	Azalpena	Zenbatekoa (eurotan)
3	Tasak eta beste sarrera batzuk	10.001
399.01	Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak	1
399.02	Beste sarrera batzuk	10.000
Sarreraren Egoera Guztira		10.001

399.01 Azpiazalpena - Azpiegiturak finantzatzeko sarrerak: Sozietatetik jasotzen diren eta Mankomunitatearen eta hainbat Erakunde Publikoren artean erabakitako azpiegitura-lanak finantzatzeko erabiliko diren sarrerak erregistratzeko.

399.02 Azpiazalpena – Beste sarrera batzuk: era askotako sarrerak erregistratzeko erabiltzen da.

GASTUEN EGOERA		
Kapitulua / Kontu saila	Azalpena	Zenbatekoa (eurotan)
2	Ondasun korronteen eta zerbitzuen gastuak	10.001
226.99	Beste gastu batzuk	10.000
227.99	Kanpoko beste lan batzuk	1
Gastuen Egoera Guztira		10.001

226.99 Azpiazalpena – Beste gastu batzuk: ohiko izaera duten beste gastu batzuetatik eratorritako hainbat obligaziori erantzuteko kreditua.

227.99 Azpiazalpena – Kanpoko beste lan batzuk: hainbat erakunderekin azpiegitura-lanak finantzatzeko sinatutako hitzarmenek sortutako betebeharrei erantzuteko kreditua. Oso-osorik Kudeaketa Sozietatearen gain eragina duenez, izaera zabalgarritzat hartzen da, berariaz.

B) Aguas del Añarbe–Añarbeko Urak, SA Sozietate Publikoaren aurrekontua

1. Sarrera

Aguas del Añarbe–Añarbeko Urak, SA Sozietate Publikoa denez, indarrean dagoen aurrekontu-araudiaren mende dago.

Aipatu araudia betez, aurrekontuarekin batera, izaera gehigarria duten honako dokumentu hauek aurkezten dira:

- 2020ko abenduaren 31rako aurreikusten den egoera balantzea
- 2020ko ekitaldirako aurreikusten den galera eta irabazien kontua
- 2020ko ekitaldirako ondare garbian aurreikusten diren aldaketen kontua

Ondoren zehazten den aurrekontuan agertzen diren aurreikuspenek eta kredituek lehen mailako sareko hornikuntza, saneamendu eta arazketa zerbitzuen eskaintzari loturiko horiek barne hartzen dituzte.

2. AUSAren Aurrekontuaren edukia azaltzen duen memoria

2020ko ekitaldi ekonomikorako aurreikusten diren sarrera eta gastuen azalpen nagusiak honako hauek dira:

Zerbitzuak emateagatiko sarrerak

Sozietateak emandako zerbitzuen ondorioz balioesten diren sarrerak hartzen ditu barne atal honek, eta hauek dira:

Kontzeptua	Zenbatekoa (eurotan)
Hornikuntza	6.851.718
Saneamendua	6.375.936
Arazketa	5.397.928
Zerbitzuak emateagatiko sarrerak guztira	18.625.582

Kide diren udalei lehen mailako sarean ematen zaizkien hornikuntza, saneamendu eta arazketa zerbitzuak direla-eta aurreikusten diren sarrera guztiak kuota hauek ezarrita lortzen dira: esleitutako emariari hornikuntza kuota finkoa ezarri ondoren (2.200 l/s/urteko); saneamendu unitarioa duen azalerari (1.538,75 ha) saneamendu eta arazketa kuota finkoa ezarri ondoren; eta 2020an hornituko direla, eta jaso eta araztuko direla balioesten diren ur bolumenei tarifaren kuota aldakorak ezarri ondoren, hurrenez hurren, 24,0 milioi m³ eta 25,6 milioi m³ (ikus “Tarifa proposamenaren azterketa” dokumentua).

Kide diren udalentsako tarifaren laburpena honako hau da (BEZ gabe):

Kontzeptua	Neurri-unitateak	Tarifa
Hornikuntza tarifa:		
Kuota finkoa	€ / l / s / urteko	804,1664
Kuota aldakorra	Euro zentimo / hornitutako m ³ -ko	21,1773
Saneamendu tarifa:		
Kuota finkoa	€ / urbanizatutako lur hektareako	1.141,8593
Kuota aldakorra	Euro zentimo / jasotako m ³ -ko	13,9229
Arazketa tarifa:		
Kuota finkoa	€ / urbanizatutako lur hektareako	1.252,2119
Kuota aldakorra	Euro zentimo / jasotako m ³ -ko	10,7852
Inbertsioen finantzaketa	€ / l / s / urteko	0,0000

Bestalde, beste sarrera guztiak etxeok ez diren erabiltzaile bereziei emandako saneamendu eta arazketa zerbitzuetatik datoz eta bi motakoak dira:

- Batetik, Añarbeko saneamenduko sistema orokorretik datozenak: sarrerak kalkulatzeko, saneamendu eta arazketako termino aldakorrei -hurrenez hurren 4,0 milioi m³-ri eta 5,8 milioi m³-ri aplikatuak- dagozkien termino finkoak gehituko zaizkie; 285,5808 € eta 354,8183 € erabiltzaileak isuri dezakeen l/s bakoitzeko.
- Bestalde, Urumearen sistema erdi-autonomotik datozenak: sarrerak kalkulatu dira 6,5068 euro zentimo / m³-ko saneamenduko termino aldakor bat 6,6 milioi m³-tan balioetsitako bolumen bati aplikatu ondoren.

Langileen gastuak

Sozietateko langileen ordainsarien, enpresak ordaindu beharreko Gizarte Segurantzako kuoten eta beste hainbat gastu sozialen aurreikuspena.

AUSAko Hitzarmen Kolektiboak finkatzen du langileen ordainsariak aldatuko direla Donostiako Udaleko langileenak aldatzen diren baldintza berdinetan; hortaz, udal horretan erabakitzen dena aintzat hartuko da. 2020. ekitaldirako langileen gastuak balioztatzerakoan, % 2ko igoera hartu da kontuan.

Halaber, AUSAko langileei dagokienez dagoeneko egindako eta etorkizunean egingo diren mugimenduen (errelebo-kontratua, kontratu berriak, erretiroak, etab.) eragin ekonomikoak hartu dira kontuan.

Azpiegiturak konpontzea, mantentzea eta zaintzea

Sozietatearen ondasunetan, edo Mankomunitatearen edo Sozietateko kide diren Udal mankomunitatearen ondasunetan aurreikusitako ekintzetan balioetsitako kostua, ekintza horiek ondasunen bizitza erabilgarria luzatzen ez dutenean.

Energia kontsumoa

Sozietateak kudeatzen dituen instalazioen kontsumoak sortzen duen gastua adierazten da atal honetan; besteak beste, Loiola HUAren energia kontsumo handia nabarmentzekoa da.

2020ko ekitaldirako, 2019ko horretarako aurreikusitako gastua baino gastu txikiagoa aurreikusten da. Zentzu horretan, energia elektrikoari loturiko gastuak 2019ko ekitaldirako kalkulatzeko MWh-ko 60 euroko batezbesteko merkatu prezioa hartu zen aintzat baina 2020rako energia elektrikoaren prezioaren egungo kotizazioa baxuagoa da: 55-56 euro MWH-ko. Horrexegatik, eta 2019. urterako aurreikusitako energia elektrikoaren kontsumoaren antzekoa aurreikusten dela ikusita, gastu baxuagoa aurreikusten da 2020rako: 162.000 euro inguru gutxiago, 2019n baino.

Bestetik, energia termikoari dagokionez (AUSAk bere jabetzakoa den Gestión de Centrales del Añarbe, SArri erosten dion energia) aurreikusitako gastua 2019rako aurreikusitako hori baino 53.000 euro inguru altuagoa da.

Horrexegatik guztiagatik, energiaren kostuak 109.000 euro inguru (% 3) behera egitea aurreikusten da.

Erreaktiboan eta laborategirako materialaren hornikuntza

Petritegi EUTEen urtegiko ur gordina tratatzen da, eta Loiola HUAne saneamendu sareetan jasotako ura; atal honetan, tratamendu horietarako beharrezkoak diren erreaktibo eta produktu kimikoen hornikuntzaren gastua adierazten da. Edateko uren eta hondakin-uren beharrezko analisiak egiteko behar den laborategiko materialaren gastua ere adierazten da.

Aseguruak

Besteak beste, Sozietatearen erantzukizun zibilaren eta ingurumen-erantzukizun zibilaren eta Sozietatearen zein beste entitate batzuen jabetzako ondasunen kalte materialaren estaldurarako kontratatutako polizen primak hartzen ditu barne. Sozietateko administratzaileen bizitza- eta erantzukizun-polizak sorrarazten dituen gastuak ere barne hartzen ditu.

Zergak

Sozietateak ordaindu behar dituen zerga-izaerako gastuak biltzen ditu atal honek. Haien artean azpimarratu behar dira, besteak beste, ekonomia jardueren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zerga.

Beste enpresa batzuek egindako lanak

Azpiegitura osatzen duten instalazioen ustiapen- eta mantentze-zerbitzuek sortzen dituzten gastuak hartzen ditu, funtsean (Añarbeko Urtegia, EUTE, Biltegiak, Ponpalekuak, HUA, etab.).

AUSAk kudeatzen duen azpiegituraren ustiapen- eta mantentze-zerbitzua emateko kontratua, Añarbe ABEEri esleitu zitzaiona, 2015eko apirilean sinatu zen eta 2020ko apirilean iraungiko da. Kontratuan adierazi zen, prezioa ez zela berrikusia izango kontratuaren indarraldian.

Gauzak horrela, aipatu kontratua esleitzeko prozesuaren izapidetzea abian da egun eta iragan irailaren 20an eskaintzak aurkezteko epea amaitu zen. Ez da arazorik ikusten kontratu berria aurrekoa amaitu bezain pronto indarrean sar dadin, hau da, datorren urteko apirila erdialdean.

Kontratu horren kostuak gora egingo du ziurrenik, ondoko baldintzen ondorioz: kontratuaren indarraldiaren barruan edo hemendik gutxira AUSAren saneamendu eta hornikuntza sarera atxikiko zaizkion azpiegitura berrien sarreragatik; orain arte kontratuaren xedean sartu ez eta kontratazio berezi baten jomuga ziren zenbait jarduketa kontratuaren xedean sartuko direlako; kalitatea kontrolatzeko sailak bitarteko handiagoak behar baititu saneamendu sarera egindako isurketak kontrolatzeko; Añarbe ABEEren langileen hitzarmen kolektibo berriaren eraginak kontratuan sartu behar direlako; eta, printzipioz, egungo egoera ekonomikoa egun indarrean dagoen kontratua esleitzeko unean zegoen egoera horren ezberdina delako eta jasoko ditugun eskaintza ekonomikoak egungo kontratuaren esleipendunak egin zuen eskaintza bezain oldarkorrek ez izatea espero dugulako.

Gauzak horrela eta une honetan eskura dugun informazioarekin, kontratu honen ondoriozko 2020ko ekitaldirako kostua 2019ko ekitaldirako aurreikusitako hori baino 807.000 euro altuagoa izatea kalkulatu da.

Finantza-gastuak

Maileguen polizetan eta indarrean dagoen kredituan ezarritako klausulen arabera, Finantza-erakundeei ordainduko zaizkien finantza gastuak biltzen ditu atal honek. Aurrekontuan agertzen den ekitaldian egingo diren hainbat inbertsio finantzatzeko gauzatuko diren maileguen interesak gehitzen zaizkio horri.

Inbertsioak

Jasotzen diren inbertsioen xedea da, goi-hornidura eta -saneamenduko azpiegitura guztiak modu egokian eraikitzea, kontserbatzea eta ustiatzea eta, dagokionean, handitzea. Zentzu horretan, dagokion eranskinak 2020rako aurreikusitako esku-hartzeen xedea xehetasun osoz azaltzen du.

Zorpetze-amortizazioak

Formalizatuta dauden maileguen eta inbertsioak finantzatzeko prest dauden maileguen amortizazioen aurreikuspenak hartzen ditu atal honek.

3. Kapitulukako laburpena

Aipatu Aurrekontua osatzen duten aurreikuspenak eta kredituak beren jatorri ekonomikoaren arabera antolatuta daude, indarrean dagoen aurrekontu-sailkapenaren arabera eta honako hau da kapitulukako laburpena:

SARREREN EGOERA		
Kapitulua	Azalpena	Zenbatekoa (eurotan)
3	Tarifak eta beste sarrera batzuk	19.363.855
5	Ondare-sarrerak	569.181
7	Kapital-transferentziak	1.350.000
8	Aktibo finantzarioak	537.073
9	Pasibo finantzarioak	1.226.942
Sarrerren Egoera Guztira		23.047.051

GASTUEN EGOERA		
Kapitulua	Azalpena	Zenbatekoa (eurotan)
1	Langileen gastuak	2.281.394
2	Ondasun korronteen eta zerbitzuen gastuak	11.872.474
3	Finantza-gastuak	8.721
6	Inbertsio errealak	8.407.790
9	Pasibo finantzarioak	476.672
Gastuen Egoera Guztira		23.047.051

4. Kontu sailkako zehaztapena

SARREREN EGOERA		
Kontu saila	Azalpena	Zenbatekoa (eurotan)
300.00	Lohi lehorraren salmenta	79.243
300.01	Biogas salmenta	372.168
310.02	Etxekoak ez diren erabiltzaile bereziei saneamendu-zerbitzua ematea	1.054.638
310.02	Etxekoak ez diren erabiltzaile bereziei arazketa-zerbitzua ematea	710.075
343.01	Udalei hornikuntza-zerbitzuak ematea	6.851.718
343.02	Udalei saneamendu-zerbitzuak ematea	5.321.298
343.03	Udalei arazketa-zerbitzuak ematea	4.687.852
399.01	Beste sarrera batzuk	286.863
III. kapitulua guztira		19.363.855
531.00	GECASAREN dibidenduak	500.000
540.00	Alokairuak	69.181
V. kapitulua guztira		569.181
721.00	AUMA: HUAN biltegi berria, hondakinentzako "garbigunea", aparkalekua eta sarrera eta kontrol ataria eraikitzea	1.350.000
VII. kapitulua guztira		1.350.000
880.00	Aurrekontua berdintzeko eragiketak	537.073
VIII. kapitulua guztira		537.073
933.00	Tokiko sektore publikotik kanpora jasotako epe luzeko maileguak	1.226.942
IX. kapitulua guztira		1.226.942
Sarrerren Egoera Guztira		23.047.051

GASTUEN EGOERA		
Kontu saila	Azalpena	Zenbatekoa (eurotan)
130.00	Langileak	1.809.768
160.01	Gizarte Segurantzako kuotak	439.061
160.04	Geroako kuotak	26.377
160.05	Mediku-farmazia asistentzia	2.464
163.05	Beste gastu sozial batzuk	3.724
I. Kapituluak		2.281.394
20	Alokairuak	
202.00	Birmineralizazio-zisternak	23.820
21	Konpontzeak, mantentzea eta zaintzea (KMZ)	
212.00	KMZ makinak, instalazioak eta tresnak	853.344
213.00	KMZ garraio-materiala	7.500
22	Materiala, hornigaiak eta beste	
220.01	Bulego materiala, inbentarioan sar ez daitekeena	19.000
220.02	Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	17.518
221.01	Energia elektrikoa	2.478.154
221.02	Ura	47.693
221.03	Energia termikoa	928.567
221.04	Erregaiak eta karburagaiak	9.700
221.09	Garbiketa eta txukuntzeko produktuak	500
221.98	Beste hornikuntza batzuk - Erreaktiboak	945.400
221.99	Beste hornikuntza batzuk – Laborategiko materiala	227.000
222.00	Komunikazioak	76.148
224.02	Ibilgailuen aseguru-primak	7.729
224.03	Kudeatutako azpiegituraren aseguru-primak	136.710

GASTUEN EGOERA		
Kontu saila	Azalpena	Zenbatekoa (eurotan)
224.99	Beste arrisku batzuk	34.944
225.01	Udal zergak	65.354
225.02	Lurralde historikoko zergak	6.700
225.03	Erkidegoko zergak	112.774
225.04	Estatuko zergak	86.141
226.03	Argitalpenak, publizitatea eta propaganda	87.000
226.04	Gastu juridikoak	90.300
226.99	Beste gastu batzuk	224.179
227.01	Garbiketa	28.518
227.07	Ikerketak eta lan teknikoak	234.320
227.99	Azpiegiturak ustiatzeko eta mantentzeko kontratua	5.082.932
23	Zerbitzuagatiko kalte-ordainak	
230.00	Dietak, lokomozioa eta langileen joan-etorriak	37.549
231.00	Kontseilu eta Batzordearen dietak eta gastuak	2.980
II. kapitulua guztira		11.872.474
312.01	Epe luzerako zorraren interesak	8.721
III. kapitulua guztira		8.721
62	Inbertsioak azpiegituretan	
	Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hedatzeko obra partekatuetan	
629.01	Papresaren lurreko isurbidearen obrak	775.000
629.02	Urumea ibaia bideratzeko obrak – 2. fasea	300.000
629.03	Usurbilgo Aginaga auzoko saneamenduaren obrak – 1. eta 2. faseak	400.000
629.04	Pasai Donibaneko saneamendua	150.000

GASTUEN EGOERA		
Kontu saila	Azalpena	Zenbatekoa (eurotan)
629.05	Gainezkabidearen birmoldatzerako obrak eta deskonexioak Pasaiaiko Badia inguruan (Donostia)	25.000
629.06	Anoeta Ibarearen saneamendua – 1. fasea	25.000
	Mankomunitatea/AUSaren ekimeneko lan berrientzako inbertsioak	
629.07	Petritegi EUBBren estalkiko arkubarnea birgaitzea: 1. basoa	10.000
629.08	Añarbeko Presaren Larrialdietako Plana ezartzea	202.774
629.09	AHIBEP Hornikuntza-azpiegituren birgaitzea	205.000
629.10	Petritegi EUTEko kontrol eraikineko birgaitze-obrak	200.000
629.11	Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-hornikuntzan sartzea (2)	150.000
629.12	Lezo udalerriko hornikuntza-sistema hobetzea	150.000
629.13	Petritegi EUTEko irteera-kutxatila aldatzea	75.000
629.14	AHIBEP Saneamendu-azpiegituren birgaitzea	300.000
629.15	Loiola HUAko hustutze-sarearen aldaketa	300.000
629.16	HUAn biltegi berria, hondakinentzako “garbigunea” eta sarrera eta kontrol ataria eraikitzea	1.717.000
629.17	Hornikuntzako obra txikiak	20.000
629.18	Saneamenduko obra txikiak	20.000
629.19	Hornikuntzako obretan laneko segurtasun eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	25.000
629.20	Hornikuntzako azterlan eta proiektuak idaztea	318.928
629.21	Saneamenduko obretan laneko segurtasun eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa	25.000
629.22	Saneamenduko azterlan eta proiektuak idaztea	300.000
629.23	Lurzorua kudeatzea obra ezberdinentzat	400.000
	Zerbitzuen ustiatzeari loturiko inbertsioak	

GASTUEN EGOERA		
Kontu saila	Azalpena	Zenbatekoa (eurotan)
629.91	Inbertsioak Hornikuntza Ustiapen Arloan	719.088
629.92	Inbertsioak Administrazio Arloan	210.000
629.93	Inbertsioak Kalitatea Kontrolatzeko Arloan	20.000
629.94	Inbertsioak Saneamendua Ustiapen Arloan	1.365.000
VI. kapitulua guztira		8.407.790
933.00	Barnekoak, Sektore Publikotik kanpo	476.672
IX. kapitulua guztira		476.672
Gastuen Egoera Guztira		23.047.051

5. Konpromiso-kredituen zehaztapena (zenbatekoa, eurotan)

Azalpena	19.12.31rain o aurreikusita ko exekuzioa	2020en aurreikus itako gehitzea (2)	Ekitaldiko aurrekontua				
			2020	2021	2022	2023	2024
Papresaren lurreko isurbidearen obrak	0	0	775.000	1.000.000	825.000	0	0
Urumea ibaia bideratzeko obrak – 2. Fasea (1)	0	300.000	0	424.061	0	0	0
Usurbilgo Aginaga auzoko saneamenduaren obrak – 1. eta 2. Faseak (1)	0	25.000	375.000	700.000	81.818	0	0
Pasai Donibaneko saneamendua (1)	0	25.000	125.000	150.000	100.826	0	0
Gainezkabidearen birmoldatzerako obrak eta deskonexioak Pasaia Badia inguruan (Donostia) (1)	0	25.000	0	200.000	539.463	0	0
Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-hornikuntzan sartzea	125.000	150.000	0	550.000	625.000	625.000	625.000
Lezo udalerriko hornikuntza-sistema hobetzea	0	150.000	0	600.000	800.000	800.000	800.000
HUAn biltegi berria, hondakinentzako "garbigunea", sarrera ataria eta aparkalekua eraikitzea (2)	0	600.000	1.117.000	0	0	0	0
Anoeta ibarraren saneamendua – 1. Fasea (1)	0	0	25.000	373.636	200.000	0	0
Petritegi EUTEko kontrol eraikineko birgaitze-obrak	0	150.000	50.000	800.000			
Guztira	125.000	1.425.000	2.467.000	4.797.697	3.172.107	1.425.000	1.425.000

(1) Entitate ezberdinekin elkartuz finantzatu diren jarduerak. Taula honetan ageri diren zenbatekoak AUSAren ekarpenei dagozkie.

(2) Añarbeko Uren Mankomunitatearen ekarpenekin finantzatu da partzialki (1.350.000 €). 2020ko aurrekontuan sartzea Añarbeko Uren Mankomunitatearen ekarpenekin finantzatu da. Honek, 2020ko urterokoaren zati bat finantzatu du ere.

6. Gastu arrunteko kapituluaren jarduerengatik banakatzea

Kapitulua	HO	SA	AR	Guztira
Langileen gastuak	1.036.937	940.079	304.378	2.281.394
Ondasun korronteen eta zerbitzuen gastuak	3.416.243	2.825.705	5.630.526	11.872.474
-Alokairuak	23.820	0	0	23.820
-Konpontzeak eta mantentzea	214.318	249.393	397.133	860.844
-Hornikuntzak	991.048	687.073	2.995.411	4.673.532
-Komunikazioak	34.207	36.716	5.225	76.148
-Aseguru-primak	72.770	83.268	23.345	179.383
-Zergak	74.049	180.394	16.526	270.969
-Beste gastu batzuk	112.809	132.670	156.000	401.479
-Beste enpresa batzuek egindako lanak (Kontrata)	1.788.623	1.334.392	1.959.917	5.082.932
-Beste enpresa batzuek egindako lanak	88.183	104.446	70.209	262.838
-Kontseilu eta langileen dietak eta gastuak	16.416	17.353	6.760	40.529
Finantza-gastuak	3.925	4.360	436	8.721
Guztira	4.457.105	3.770.144	5.935.340	14.162.589

7. Inbertsioen eranskina

AUSaren eginkizunetako bat ondokoa da: beharrezko inbertsioak egitea Mankomunitateak emakida-tituluaren ondorioz bere esku dituen baliabide hidraulikoen erabilera eraginkor eta egokiena bermatzeko. Horretarako, bere ardurako eta beharrezkotzat jotzen diren hornidura- eta saneamendu-egitura guztien eraikuntza, mantentze eta ustiatze aproposa bermatuko du eta inbertsioak egingo ditu ere edateko ura hornitzeko eta hondakin- eta euri-uren goi-saneamenduko zerbitzua ahalik eta baldintza onenetan eman dadin, ingurumenaren eta Mankomunitatea osatzen duten hamar udalerrietako biztanleen beharren mesedetan.

Honela, azken urteotan egin eta datorren 2020. urtean ere errepikatuko diren inbertsioen xedea da Mankomunitatea/AUSaren titulartasuneko hornidurako eta goi-saneamenduko azpiegitura hidraulikoa zabaltzea, eguneratzea, birgaitzea eta hobetzea.

Gauzak horrela, 2020ko ekitaldirako aurreikusitako inbertsioak ikus daitezke jarraian. Aipatuek eragiketa berriak zein 2019ko ekitaldian dagoeneko jasotako eta 2020. urtean beren gauzatzea luzatua izango duten esku-hartzeak hartzen dituzte barne (zenbateko guztiak eurotan, BEZ gabe):

7.1. Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hedatzeko obra partekatuetan

Esku-hartzea	Zenbatekoa (BEZ gabe)		
	2019ko aurrekontuan	2020	Guztira
1. Hornidurako jarduketa partekatuak	0	0	0
2. Saneamenduko jarduketa partekatuak	375.000	1.300.000	1.675.000
1. Papresaren lurreko isurbidearen eraikuntza (1)	0	775.000	775.000
2. Urumea ibaia bideratzeko lanak – 2. Fasea (2) (7)	300.000		300.000
3. Usurbilgo Aginaga auzoko saneamenduaren obrak – 1. eta 2. Faseak (3) (7)	25.000	375.000	400.000
4. Pasai Donibaneko saneamendua (4) (7)	25.000	125.000	150.000
5. Gainezkabidearen birmoldatzerako obrak eta deskonexioak Pasaiako Badia inguruan (Donostia) (5) (7)	25.000		25.000
6. Anoeta Ibarren saneamendua – 1. Fasea (6) (7)		25.000	25.000
Partekatutako obrak guztira	375.000	1.300.000	1.675.000

(1) 1.825.000 € gehiago beharko ditu 2021 eta 2022 bitartean

(2) 424.061 € gehiago beharko ditu 2021ean

(3) 781.818 € gehiago beharko ditu 2021 eta 2022 bitartean

(4) 250.816 € gehiago beharko ditu 2021 eta 2022 bitartean

(5) 739.463 € gehiago beharko ditu 2021 eta 2022 bitartean

(6) 573.636 € gehiago beharko ditu 2021ean

(7) Entitate ezberdinekin elkartuz finantzatzeko diren jarduerak. Taula honetan ageri diren zenbatekoak AUSaren ekarpenei dagozkie

7.2. Mankomunitatea/AUSAREN ekimeneko lan berrientzako inbertsioak

Esku-hartzea	Zenbatekoa (BEZ gabe)		
	2019ko aurrekontuan	2020	Guztira
1. Hornikuntza	655.000	337.774	992.774
AHIBEP Azpiegitura Hidraulikoa berritzeko planeko esku-hartzeak, garapen fasean	655.000	337.774	992.774
1. Petritegi EUBBren estalkiko arkubarnea birgaitzea: 1. basoa		10.000	10.000
2. Añarbeko Presaren Larrialdietako Plana ezartzea		202.774	202.774
3. AHIBEP Hornidurako azpiegituren birgaitzea	205.000		205.000
4. Petritegi EUTEko kontrol eraikineko erreforma-obrak (1)	150.000	50.000	200.000
5. Urrietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-hornikuntzan sartzea (2)	150.000		150.000
6. Lezo udalerriko hornidura-sistema hobetzea (3)	150.000		150.000
7. Petritegi EUTEko irteera-kutxatila aldatzea		75.000	75.000
2. Saneamendua	600.000	1.717.000	2.317.000
AHIBEP Azpiegitura Hidraulikoa berritzeko planeko esku-hartzeak, garapen fasean	0	600.000	600.000
1. AHIBEP Saneamenduko azpiegituren birgaitzea		300.000	300.000
2. Loiola HUAko hustutze-sarearen aldaketa		300.000	300.000
Beste esku-hartze batzuk	600.000	1.117.000	1.717.000
1. HUA n biltegi berria, hondakinentzako "garbigunea" eta sarrera eta kontrol ataria eraikitzea (4)	600.000	1.117.000	1.717.000
4. Obra txikiak	0	40.000	40.000
1. Hornikuntza		20.000	20.000
2. Saneamendua		20.000	20.000
5. Azterlan, proiektu eta antzekoak idaztea	193.928	475.000	668.928
Hornikuntza	193.928	150.000	343.928
1. HOKo obretan laneko segurtasun eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa		25.000	25.000
2. 2020-21 proiektu-zorroa		125.000	125.000
3. Lezo udalerriko hornikuntza-sistema hobetzea	68.928		68.928
4. Santa Barbara EUBBtik Hernanirako hornikuntza-sistema hobetzea	90.000		90.000
5. Hernani udalerriko hornikuntza-sistema hobetzea	35.000		35.000
Saneamendua	0	325.000	325.000
1. SAKo obretan laneko segurtasun eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa		25.000	25.000
2. 2020-21 proiektu-zorroa		125.000	125.000
3. Loiola HUAko zabaltzea egiteko proiektua		175.000	175.000
6. Lurzoruaren kudeaketa obrak gauzatzeko	0	400.000	400.000
1. Lurzorua kudeatzea obra ezberdinentzat		400.000	400.000
Mankomunitatea/AUSAREN obra berriak guztira	1.448.928	2.969.774	4.418.702

(1) 800.000 € gehiago beharko ditu 2021ean

(2) 2.425.000 € gehiago beharko ditu 2021 eta 2024 bitartean

(3) 3.000.000 € gehiago beharko ditu 2021 eta 2024 bitartean

(4) Añarbeko Uren Mankomunitateak zati batean diruz lagunduko duen esku-hartzea

7.3. Zerbitzuen ustiatzeari loturiko inbertsioak

Arloa	Zenbatekoa (BEZ gabe)		
	2019ko aurrekontuan	2020	Guztira
1. Hornikuntza Arloa	199.088	520.000	719.088
Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea EUTE	15.000	247.000	262.000
1. Laneko Segurtasun eta Osasunerako ekipo eta sistemak		10.000	10.000
2. Prozesua kontrolatzeko ekipo eta sistemak		7.000	7.000
3. Plantako SCADAren kontrol-sistemaren optimizazioa (Presa, sareak eta EUTE)	15.000		15.000
4. Txarrantxatutako dorrea muntatzea komunikazioetarako eta Kontrol Zentroarekiko konexioa		30.000	30.000
5. Ozono-armairu berria (proiektu eta exekuzioa)		40.000	40.000
6. Haize-makina berriak ozonoa sortzeko		120.000	120.000
7. TZI kameren ordeztu IP teknologia aplikatzea		15.000	15.000
8. Zerbitzuz kanpoko EUTE kanalizazioetako mahukak kentzea eta eskema elektrikoak eguneratzea.		25.000	25.000
Hornikuntza-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Sareak	184.088	180.000	364.088
1. Kutxatiletako estalkiak aldatzea adarretan	50.000		50.000
2. Hornidura-sareko komunikazio-sareak berritzea	36.000		36.000
3. Ponpa berriak IV. adarrerako	98.088		98.088
4. EE berria Maleo EUPerako		30.000	30.000
5. Ponpak abiarazteko kaxa elektrikoa Maleo EUPerako, kableak barne		40.000	40.000
6. Petritegiko ponpak berrikusi eta muntatzea Maleo EUPEn (bankadak, itxitura mekanikoak)		30.000	30.000
7. LED argi berriak jartzea biltegi eta ponpaketetan.		30.000	30.000
8. EUBB ezberdinetako kutxa elektriko neurgailuak instalatzea		25.000	25.000
9. Putzuetako itxitura perimetrala hobetzea, zokaloa jarri, bai eta konkorak ere errepidean		25.000	25.000
Hornikuntza-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Añarbeko Presa		65.000	65.000
1. Hondoko hustubideetako Bureau konportetako by-pass balbula aldatzea		30.000	30.000
2. Bide perimetraleko goi sarrerak monitorizatzea eta TZI bidezko kontrola		35.000	35.000
Hornikuntza-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: LTZ		10.000	10.000
1. AUSAren azpiegituren mantentze-programa hobetzea		5.000	5.000
2. Zenbait inbertsio txiki		5.000	5.000
Beste gastu orokor batzuk		18.000	18.000
1. Arloaren segurtasun-prozedurak euskaratzea		18.000	18.000
2. Administrazio Arloa	130.000	80.000	210.000
1. Altzariak, tresnak eta beste behar batzuk erostea		5.000	5.000
2. Segurtasun-sistemak ezartzea HO eta SA arloetan	30.000	20.000	50.000
3. Ekipo informatikoak		20.000	20.000
4. Enpresa-kudeaketarako softwarea	100.000		100.000
5. Sozietatearen webgunea garatzea		15.000	15.000
6. Ingurumen hezkuntza eta dibulgaziorako sistema eta materialak		20.000	20.000
3. Kalitatea Kontrolatzeko Arloa	0	20.000	20.000
Edateko Uren laborategirako material eta ekipoak erostea	0	10.000	10.000
1. Zenbait ekipo erostea	0	10.000	10.000
Hondakin Uren laborategirako material eta ekipoak erostea	0	10.000	10.000
1. Zenbait ekipo erostea	0	10.000	10.000

Arloa	Zenbatekoa (BEZ gabe)		
	2019ko aurrekontuan	2020	Guztira
4. Saneamendu Arloa	50.000	1.315.000	1.365.000
Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: HUA	50.000	995.000	1.045.000
1. SCADA kudeatzeko plan estrategikoa	0	100.000	100.000
2. LAP ekintza plana	0	30.000	30.000
3. Lehortzerako lohien emari-neurgailua	20.000		20.000
4. Bibrazioen aurkako gailua iriste-obrako hodientzako	30.000		30.000
5. Gurutze HUA berritzeko obrak	0	70.000	70.000
6. Ponpa zentrifugoen hornikuntza, instalazio eta mantentzea deshidratazio eraikinean	0	450.000	450.000
7. Birzirkulazioaren usaina kentzeko prozesurako soda eta hipokloritoko biltegiak ordezkatzeko	0	100.000	100.000
8. Deshidratatutako lohirako toberaren torlojuak aldatzea	0	50.000	50.000
9. Iriste-obrako uhal garraiatzailea ordezkatzeko	0	50.000	50.000
10. Polielektrolitoa prestatzeko makina ordezkatzeko birzirkulazio eraikinean	0	25.000	25.000
11. Usaina kentzeko prozesuko birzirkulazio-ponpak aldatzea	0	25.000	25.000
12. Birzirkulazio eta Meheak Arbastatzeko eraikinetatik hondakinak ateratzeko kanala instalatzea	0	95.000	95.000
Saneamendu-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: Sareak	0	320.000	320.000
1. Laneko Segurtasun eta Osasunerako ekipo eta sistemak	0	30.000	30.000
2. SA instalazioetako ateak bezatzeko proiektua	0	20.000	20.000
3. Ekipo elektrogenoa Errenteria HUPE	0	50.000	50.000
4. Ponpak berritzea eta buxaduren aurkako kapetea duten unitate berriak erostea	0	60.000	60.000
5. PLCa ordezkatzeko (Santa Katalina eta Ibaeta HUPE)	0	30.000	30.000
6. Saneamendu Arloko telekomunikazio-sistema aldatzea	0	50.000	50.000
7. Suteen aurkako sistema instalatzea, Zubieta HUPE	0	15.000	15.000
8. HUPEetako argiteria-sistema optimizatzea	0	25.000	25.000
9. Seinale berriak sartzeko SAKo SCADAn	0	25.000	25.000
10. Hipodromo HUEB hobetzea (sarbideak, aireztapena, etab.)	0	15.000	15.000
Zerbitzuen ustiatzeari loturiko inbertsioak guztira	379.088	1.935.000	2.314.088

7.4. Inbertsioak guztira

Inbertsioak	Zenbatekoa (BEZ gabe)		
	2019ko aurrekontuan	2020	Guztira
Inbertsioak azpiegitura zabaldu eta hedatzeko obra partekatuetan	375.000	1.300.000	1.675.000
Mankomunitatea/AUSAren obra berriak	1.448.928	2.969.774	4.418.702
Zerbitzuen ustiatzeari loturiko inbertsioak	379.088	1.935.000	2.314.088
Guztira:	2.203.016	6.204.774	8.407.790

7.5. Inbertsioen memoria

7.5.1 Inbertsioak azpiegitura hidraulikoa zabaldu eta hedatzeko obra partekatuetan

* Papresaren lurreko isurbidearen eraikuntza (ETPP)

Proiektu honek, PAPRESAn sortzen diren isuriak zuzenean itsasora garraiatzeko lurpeko isurbide bat eraikitzeke egin beharreko lanak zehazten ditu. Isurbidea Oiartzun ibaiaren eskuin aldetik igarotzen da lehenengo, eta ondoren Pasaiako Portutik, Herrerako tren estaziotik eta, azkenik, Herrera-Loiolako tren-tuneletik Monpaseko lurreko isurbidearen karga-ganberara iritsi arte; hemendik, isurbide honek garraiatuko dituen urek, Loiolako araztegitik datorren efluentearekin batera itsasoko bidea jarraituko dute. Horrela ez dira araztegitik igaroko eta ez dute eraginik izango bertan.

Planteamendu honek eskatzen du, aipaturiko enpresak bere efluenteak fabrikari bertan araztu behar ditutela, eskumena duen agintaritzak exijitzen dituen mailak bete ahal izateko. Guzti hori nola egikaritu behar den finkatu zen 2019ko apirilaren 29an sinatu zen hitzarmenean.

Orain dela gutxi, AUSAren Administrazio-Kontseiluak, 2019ko uztailaren 29an egin zuen bilkuran, onetsi zuen ETPParen lizitazioa.

Jarduera honek 775.000 €-ko zuzkidura du 2020. ekitaldirako eta 1.825.000 €-koa hurrengo bi ekitaldietarako.

* Finantzazio partekatua izango duten beste esku-hartze batzuk

Uraren Euskal Agentziak eta erakunde publiko ezberdinek (tartean, Añarbeko Uren Mankomunitatea AUSAren bitartez) hemendik gutxira sinatuko duten hitzarmenak zenbait esku-hartze hartzen ditu barne.

Ondokoa da 2020rako aurreikusi diren esku-hartze horietako zuzkiduren xehakapena (beren zenbatekoa 900.000 eurokoa da, guztira):

Urumea ibaia bideratzeko lanak – 2. fasea	300.000 €
Usurbilgo Aginaga auzoko saneamenduaren obrak – 1. eta 2. faseak	400.000 €
Pasai Donibaneko saneamendua	150.000 €
Gainezkabidearen birmoldatzerako obrak eta deskonexioak Pasaiako Badia inguruan (Donostia)	25.000 €
Anoeta ibarraren saneamendua – 1. Fasea	25.000 €

Dokumentu honen 5. atalean ikus daitekeen bezalaxe, esku-hartze horiei loturiko aurrekontu-sailak aurreikusi dira ere 2021eko ekitaldirako eta ondoko ekitaldietarako (2.769.794 euro, guztira):

Urumea ibaia bideratzeko lanak – 2. fasea	424.061 €
Usurbilgo Aginaga auzoko saneamenduaren obrak – 1. eta 2. faseak	781.818 €
Pasai Donibaneko saneamendua	250.816 €
Gainezkabidearen birmoldatzerako obrak eta deskonexioak Pasaiako Badia inguruan (Donostia)	739.463 €
Anoeta ibarraren saneamendua – 1. Fasea	573.636 €

7.5.2 Mankomunitatea/AUSAren ekimeneko lan berrientzako inbertsioak

Hornikuntza

AHIBEP Azpiegitura Hidraulikoa berritzeko planeko esku-hartzeak, garapen fasean

Esku-hartze hauek berebiziko garrantzia dute azpiegituren balio-bizitza luzatzeko beren funtzionamendu-baldintza egokiak mantendu eta denboraren iragaitearen ondoriozko kalteak eta, finean, saihestezina den beren higadurari loturiko galmena saihesten baitute.

*** Petritegi EUBBko 1. basoaren estaldura berritzea**

2019. urtean “Petritegi EUBBko 1. Basoaren estaldura berritzea” izeneko obrak esleitu ziren. Beren xedea da estaldura osatzen duten aurrefabrikatutako xafla guztiak ordezkatzea, zenbatekoa 453.852,12 € delarik. Obrak abian daude dagoeneko eta 2020ko hasieran amaitzea espero da.

10.000 euroko zuzkidura izango du esku-hartzeak 2020. urtean.

*** Añarbeko Presaren Larrialdietako Plana ezartzea**

Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Presa eta Urtegien Segurtagarri buruzko Erregelamendu Teknikoa betez, Añarbeko Presaren Larrialdietako Plana ezarri beharra dago. Ministerioak iragan 2019. urtean onartu zuen plana, izapidetze-prozesu luze baten ondoren. Horrexegatik, eta planak dioena garatzeko, jasotako obrak eta proposamenak abiatu beharrean gaude. 2020rako soinudun oharpen-gailuak (sirenak) Urumea ibaiaren ibilguan zehar instalatzea espero da, Ereñozuraino.

Esku-hartzearen zenbatekoa 202.774 eurokoa da.

* **AHIBEP Hornidurako azpiegiturak birgaitzeko planean jasotako beste esku-hartze batzuk**

Aurrekoaz gain, urte honetan ondoko obren lizitazioa egitea espero da, lehiaketa irekiaren bitartez:

- EUTEko irazkiak garbitzeko urak hustutzeko ubidea birgaitzea
- AHIBEP – EUTEko irazkien birzirkulazio-biltegia birgaitzea

Esku-hartzeak 205.000 euroko zuzkidura izango du.

* **Petritegi EUTEko kontrol eraikineko birgaitze-obrak**

Edateko uren Kalitatea Kontrolatzeko Laborategia handitu ahal izateko, Petritegi EUTEko kontrol eraikina berritu beharra dago.

Berrikuntza hori aprobetxatuz, EUTEko kontrol koadroetako instalazioak hobetu eta eraikineko bulegoak berrantolatuko dira.

Obra horiek inbertsio handia suposatuko badute ere (1.000.000 euro inguru), 2020ko ekitaldirako zuzkidura 200.000 eurokoa izango da eta 800.000 euro gehiago aurreikusten dira 2021eko ekitaldirako.

* **Urnietako hiri-sektoreak Añarbeko sistemaren ur-hornikuntzan sartzea**

Esku-hartze honen xedea ondokoa da: berezko sistemak, udalerrian hartutako urak eta Oiamar, Goikoetxe, Armuntto eta Lizarratxope biltegi-tako urak erabiltzen dituzten Urnietako guneak Añarbeko sistemaren barruan sartzea.

Proiektua idazketa-fasean dago; 2020ko lehen seihilekoan zehar izapidetzea espero dugu; eta bigarren seihilekoan esleipena egitea.

Obrek inbertsio handia eskatuko dute, 2.600.000 euro ingurukoa. 2020ko ekitaldiko zuzkidura 150.000 eurokoa izango da eta beste 2.425.000 euro aurreikusten dira 2021-2024 epealdirako.

* **Lezo udalerriko hornikuntza-sistema hobetzea**

Egun Lezoko Udalak kudeatzen dituen zenbait hornikuntza-sistema (Amesti, Monatxo, Elortegi eta Arriandi) Añarbeko sistemaren (Petritegi EUTE – Darieta EUBB) bitartez hornitzeko aukera izateko beharrezkoak diren lanak zehaztea da esku-hartze honen xedea.

Lezo udalerriko hornikuntza-sistema hobetzeko proiektua idazketa-fasean dago eta 2020ko amaierarako bukatua egotea espero da.

2020ko ekitaldirako zuzkidura 150.000 eurokoa da eta beste 3.000.000 euro aurreikusi dira 2021-2024 epealdirako.

*** EUTEko irteera-kutxatilako 1. eta 3. adarretako hodiak aldatzea.**

2018. urtean ihesak aurkitu ziren 1. eta 3. adarretako irteera-hodiak kutxatilaren paretarekin topo egiten duten gunean. Arazoa galdaragintza-lanen bitartez konpontzen saiatu garen arren, ezin izan dugu konpondu oraindik. Aurreikusitako behin betiko konponbidea ondokoa da: egungo hodiaren barruan hodi herdoilgaitz berri bat jartzea. Halaber, aukera baliatuz bi mozketa-balbula berri jarriko dira, kutxatila horretako emari-neurgailuetatik behera, maniobra mota horietan adarrak betetzeko emariak kontrolatu ahal izateko eta materialen herrestatzea ekiditeko.

Esku-hartzearen zuzkidura 75.000 eurokoa izango da.

Saneamendua

AHIBEP Azpiegitura Hidraulikoa berritzeko planeko esku-hartzeak, garapen fasean

Arestian aipatu bezala, esku-hartze hauek berebiziko garrantzia dute hornidurako zein saneamenduko azpiegituren balio-bizitza luzatzeko. Saneamenduko azpiegituren kasuan, ondoko obrak esleitzea aurreikusten da, besteak beste:

*** Loiola HUAko hustutze-sarearen aldaketa**

Loiola HUAko birzirkulazio guztiak jasotzen dituen hustutze-sareak HUAren iriste-obraraino eramaten ditu urak egun. Honela, tratatutako uraren zati bat plantaren hasieraraino bueltatzen da, tratamendu berri bat jasotzeko. Esku-hartze honekin efluentearen kalitatea hobetu eta energia aurreztuko da.

Horrez gain, hustutze-sareko urak berriz ere plantaren hasierara ez bueltatzea bilatuko da, plantaren tratamendu biologikora igorriko baitira zuzenean.

Obrak 2019. urtean esleitu ziren, 390.189 euroko zenbatekoarekin. Obrak hemendik gutxira hasiko dira eta 2020ko lehen lauhilekoan amaitzea espero da.

Esku-hartzeak 300.000 euroko zuzkidura izango du.

*** AHIBEP Saneamendu-azpiegiturak birgaitzeko planean jasotako beste esku-hartze batzuk**

- Hondar-kentzea deskargatzeko ganbera birgaitzea. HUAren 2. by-passa.
- HUAren 1. by-passa birgaitzea.
- HUAren dekantagailuak banatzeko ubidea birgaitzea – 3. fasea

300.000 euroko zuzkidura aurreikusi da aipatu esku-hartze guztietarako.

Beste esku-hartze batzuk

*** HUAn biltegi berria, hondakinentzako “garbigunea” eta sarrera eta kontrol ataria eraikitzea**

2019. urtean, HUAn biltegi berria eta “garbigunea” eraikitzeko (egungoak dituen mugak eta saturatua dagoela ikusita) proiektua osatu zen. Horrez gain, sarrera eta kontrol atari berri bat sartu zen proiektuan. Atariak, etorkizunean, segurtasuneko jagole bat hartuko du deiak, profesionalen sarrera-irteerak, bisitak, kamioien pisatzeak, segurtasuna eta antzeko atazak kudeatzeko.

Eraikuntzaren esleipenerako 1.767.483 euroko zenbatekoa zehaztu zen. Esleipena 2020ko hasierarako aurreikusia dago.

Esku-hartzeak 1.717.000 euroko zuzkidura izango du.

Hornidura eta saneamenduko obra txikiak

Urte hauetako ibilbideak erakutsi digun bezala, urtero zenbait lan txiki gauzatzeko beharra egoten da, eta premiaz askotan. Beren tamaina eta izaera ikusita, Añarbeko Urak erakundeko arduradun teknikoek erabakitzen dituzte zunenean eta aproposa izaten ohi da aurrekontu-sail bat aurreikustea obra txiki horiek gauzatzeko. Oraingoan aurrekontu txikiagoa izango du sailak, izaera orokorreko aurrekontu-mugen ondorioz.

2020ko ekitaldirako 20.000 euroko sail bana aurreikusi dira, hornikuntza zein saneamendurako.

Azterlan, proiektu eta antzekoak idaztea

Ohikoa denez, arestian aipatutako inbertsioak gauzatzeko horiei dagozkien proiektuak idazteko zenbatekoak aurreikusi beharra dago inbertsioen eranskinean. Horri, izaera teoriko nabariagoa duten zenbait plan edo azterlan gehituko zaizkio; aurreikusitako zenbatekoak beherago zerrendatuta daude.

Hornikuntza

*** Hornidurako obretan laneko segurtasun eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa**

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko indarreko legediak egingo diren obra guztien segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanen ardura hartuko duten gaitutako enpresa edo profesionalak izendatzea eskatzen du.

* **Saneamenduko obretan laneko segurtasun eta osasuna koordinatzeko laguntza teknikoa**

Laneko segurtasun eta osasunari buruzko indarreko legediak egingo diren obra guztien segurtasuna eta osasuna koordinatzeko lanen ardura hartuko duten gaitutako enpresa edo profesionalak izendatzea eskatzen du.

Añarbeko Urak erakundearen tamaina aintzat hartuz, ataza horiek kanpora aterako dira eta 25.000 euroko aurrekontu-zuzkidura aurreikusi da derrigorrezko eginkizun honetarako, zeina hornikuntza zein saneamenduko obretan aplikatuko baiten.

* **2020-2021 proiektu-zorroa**

Ekitaldian zehar kanpoko ingeniari-entrepresa batek egindako azterlan teoriko baten edo gauzatze-proiektu baten beharra izango duen esku-hartzeren bat gauzatzeko beharra egongo balitz, 125.000 euroko zuzkidura egongo da horretarako.

Loiola HUAren zabaltzea egiteko proiektua

HUAren isurketa-baimenaren baldintzak ez betetzeagatik URArekin dagoen arazoa aintzat hartuz eta aipatu baimeneko parametroak bete ahal izateko araztegia handitzea edo zabaltzea behar-beharrezkoa dela ikusita, HUA zabaltzeko eraikuntza-proiektua idaztea erabaki da. Trantsizio Ekologikoaren Ministerioari (MITECO) dagokio proiektua idaztea eta horrela jaso zen *Plan Hidrológico Nacional*-ean, baina Madrilgo Gobernuak ez dituen proiektuaren idazketa lizitzatzeko pleguak ere onartu, lanaren zati horren ardura hartzea erabaki da. Esku-hartzeak 175.000 euroko zuzkidura izango du.

Lurzoruaren kudeaketa obrak gauzatzeko

* **Lurzorua kudeatzea obra ezberdinentzat**

Atal arrunta AUSAren inbertsioen barruan, lurzorua kudeatzea da bere xedea, obrak gauzatu ahal izateko. Honela, Mankomunitateak eraikiko dituen azpiegiturak hartuko dituzten lurzoruaren jabeen eman beharreko kalte-ordainak eta, bere kasuan, kudeaketa horretarako kontratatutako kanpoko zerbitzu teknikoaren ordainsariak hartzen ditu barne.

2020ko ekitaldian 400.000 euro aurreikusi dira zenbait obra gauzatu ahal izateko beharko diren lurzoruak kudeatzeko. Aurreikusitako zenbatekoaren ia guztia Aginagako hornikuntza-proiektura bideratuko da ziurrenik.

7.5.3 Zerbitzuen ustiatzeari loturiko inbertsioak

Hornikuntza, Saneamendu, Kalitatea Kontrolatzeko eta Administrazio arloek egin beharko dituzten inbertsioak dira. Normalean, Proiektu eta Obrak arloari dagozkion inbertsioak (arestian jasoak) baino unitate-balio txikiagoa dute.

Zerbitzuen prestakuntzarik aproposena bermatzea da xedea, bai eta instalakuntzen (elektromekaniko zein elektriko) berritze, birgaitze edo eguneratzea bermatzea ere ekipoen zaharkitzea saihesteko (bai katalogotik kanpo geratuko direlako bai beren balio-bizitza amaitu delako). Halaber, laborategiko analisi-aparatu, ekipo informatiko eta ofimatiko, ibilgailu eta antzekoen erosketak barne hartzen du ere.

Datorren ekitaldirako, 2.314.088 euroko zuzkidura dute guztira. Beren xehakapena behean jasota dago. Jasotako esku-hartze gehienen izenburu edo azalpena nahiko adierazgarria denez beren xedea eta edukia adierazteko eta aurrekontu-sailen kopuru handia eta izaera anitza aintzat hartuta, esku-hartze garrantzitsuenak baino ez dira azalduko ondoren. Xede eta ezaugarri komunak dituzten beste esku-hartze txikiak, aitzitik, taldeka adieraziko dira.

Hornikuntza Arloa

Hornidura-azpiegiturak hobetzea eta modernizatzea: EUTE

262.000 euroko zuzkidurarekin, guztira, ondoko helburua duten ekipo eta sistemetan inbertitzea da xedea:

- * **Segurtasun eta osasunari loturiko esku-hartzeak** (10.000 euro). Instalazioen segurtasuna hobetzea da xedea. Esku-hartze hauen jatorria instalazioen arrisku-ebaluazioen berrikuspenean izan daiteke, edo ustiatzearen ardura duten langileek aurkitu dituzten gabeziak. Aipatu langileek Añarbeko azpiegitura ustiatu eta mantentzeko ardura duen esleipendunaren segurtasun-batzordeari emango diote aurkitutako gabezien berri.
- * **Prozesua kontrolatzeko ekipo eta sistemak** (7.000 euro): Inbertsio hauen bitartez, berezko aurrekontu-saila izateko tamainarik izan gabe EUTEaren zerbitzuaren jarraipena bermatu eta, bestetik, ekipoak eguneratzeko egiten diren esku-hartze txikiak finantzatzen dira.
- * **Plantako SCADAren kontrol-sistemaren optimizazioa** (Presa, sareak eta EUTE) (15.000 euro): Hornikuntzako SCADAren egin beharreko aldaketa eta eguneratze guztiak bilduko dituen sail ekonomiko bat zehaztea erabaki da.
